

# 15

**GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA**  
**FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS**  
**HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL**

**DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2017**

**31** martxoa / marzo / March - **7** apirila / abril / April

Human  
Rights  
Film  
Network

Connecting  
human rights  
film festivals  
around the world





SECCIÓN OFICIAL  
UNA CIERTA MIRADA  
CANNES 2016

**SEMINCI**  
CINE DE AUTOR

PREMIO PILAR LARRO  
MEJOR NUEVO  
DIRECTOR  
MAYO 2018

**SEMINCI**  
CINE DE AUTOR

PREMIO MEJOR  
DIRECCIÓN DE  
FOTOGRAFÍA  
MAYO 2018

(ESHTEBAK)

# CLASH

UNA PELÍCULA DE MOHAMED DIAB

[www.golem.es/distribucion](http://www.golem.es/distribucion)

G&L

# AURKEZPENA

## Zinemak hobek egiten gaitu

Bizi garen mundua jotzen jarraitzen dute hainbat egoerek, egunez egun urratzen baitira pertsona askoren eskubideak eta duintasunak. Tamalez, herrialde askotan oraindik ere haur eta gazte askok ez dute bizitzan aurrera egiteko aukerarik, eta emigratu behar izaten dute, baita beren bizitza arriskuan jarrita ere. Eta hainbat emakume eta neskatok ezin du aske bizi, gutako edozeinek edo haien kide gizonezkoek egingo lukeen bezala. Eta hainbat pertsona beren ideiegatik jazartzen eta espetxeratzeko dituzte. Eta oinarriko hainbat eskubide –hala nola hezkuntza, lana, sexu nortasuna edota ingurumen bizigarria– ez da inondik inora ageri.

Nelson Mandela gogoan, *“pertsonen giza eskubideak kentzea haien gizatasuna bera zaltzen jartzea da”*.

Paradoxikoki, beste herrialde batzuetan aurrerapenak izan dira, duela urte gutxi arte irteerarik gabek ziruditen gatazketan: Kolonbian oraintsu lortutako bake hitzarmenek esperantza pizten dute ezen, gerrarik ankerrenetan ere, hitza ernamuin daitekeela eta armarik gabeko ingurunea sor dezakeela. Agian kontsolamendu soila da, baina itxaropena ez galtzera bultzatzen gaitu, herrialde asko egunez egun odoljarrioa daudelarik, gureak ere badiren milaka herrikideren bitartez.

Oraintsuko gure historia bera, gure bizipenak, era berean, argi egiten ari dira, hainbeste iluntasunaren erdian. Aspaldi gabe, batzuek uste zuten kideko baten bizia amaia-raztea bitarteko justifikatua zela, helbururen bat lortzeko; orain, zorionez, gure gizarteak orrialde hori pasatu du. Oraindik badira beste orrialde batzuk idazteke, hainbeste irrikatu dugun bakea egia bilaka dadin, oroimenean, ordaintzan eta justizian oinarritua. Eta gehien sufritu dutenek kontsolamendua aurki dezaten, beren sufrimendua edo beren ingurukoena bizipen hutsala izan gabe, baizik eta nozitu duten injustiziaren ezagutza izanik.

Indarkeriaren agerpenak izan dituzten gizarteetan bizi izan garen guztiok, ziur naiz, irrikaz gaude “berriz ez!” oihu egiteko. Eta behin honaino iritsita, uste dut badela faktore nagusi bat, hain zuzen ere beste edozeinek baino areago gorrotoa edota fanatismoa gizabakoetan eta taldeetan sartzea eragozten lagun dezakeena: hezkuntza.

Balioetan sendoa den hezkuntza bat, argi adieraziko duena zer den bidezkoa eta zer den bidegabea; tolerantzia, askatasuna, errespetua eta senidetasuna sustatuko dituen. Berdintasunean heziko duen irakaskuntza bat. Balio horiek guztiak, zoritxarrez, ez dira topikoak edo leku komunak. Errealitateak agertzen digu ezen, giza dimentsio humanista horri gazte-xoenen hezkuntzan kontu egiten ez badiogu, luzarora ondorioak ordaintzen direla, demokrazia urriagoko gizarte bihurtuta.

Testuinguru horretan ezartzen dut Giza Eskubideen Zinemaldiak egiten duen ekarpena, balio horiek inspiratzen dituen gunetzat. Artearen ikuspegitik, aurten ere, pentsaraziko diguten, eragingo diguten eta hunkituko gaituzten filmen turrusta helduko zaigu. Horrek guztiak lagunduta, zikloaren bukaeran, pertsona hobek izango gara.

# PRESENTACIÓN

## El cine que nos hace mejores

El mundo en el que vivimos sigue aquejado de situaciones en las que la vulneración de derechos y dignidades de muchas personas es una realidad cada día. Desgraciadamente, en muchos países sigue habiendo niñas, niños y jóvenes sin horizontes vitales que se ven obligados a emigrar con riesgo incluso de su propia vida. O mujeres que no pueden vivir su libertad como sus semejantes varones. O personas que por sus ideas son perseguidas y encarceladas. O donde derechos básicos como la educación, el trabajo, la identidad sexual o un medio ambiente habitable brillan por su ausencia.

Recordando a Nelson Mandela, *“privar a las personas de derechos humanos es poner en tela de juicio su propia humanidad”*.

Paradójicamente, en otras latitudes se producen avances en conflictos que hace pocos años parecían no tener salida: los recientes acuerdos de paz de Colombia alientan la esperanza de que, incluso en las guerras más cruentas, la palabra puede germinar y alumbrar un escenario sin armas. Es quizá un consuelo, pero que invita a no perder la esperanza en un mundo en el que muchos países sangran día tras día a través de miles de conciudadanas y conciudadanos que también lo son nuestras y nuestros.

Nuestra propia historia reciente, nuestras vivencias, son también un faro de luz en medio de tanta oscuridad. Si hace no mucho había quienes consideraban que segar la vida de un semejante era un medio justificado por algún fin, nuestra sociedad ha pasado afortunadamente esta página. Quedan todavía algunas otras que escribir, para que la paz que tanto hemos anhelado sea una realidad sustentada en la memoria, la reparación y la justicia. Y para que quienes más han sufrido encuentren consuelo en una vivencia donde su sufrimiento o el de sus personas allegadas no sea una vivencia vacía, sino que tenga el reconocimiento de la injusticia de la que han sido objeto.

Quienes hemos vivido en sociedades con manifestaciones de violencia compartimos, estoy seguro, un anhelo de gritar “¡nunca más!”. Y en este punto creo que existe un factor central que precisamente puede servir más que ningún otro para evitar que el odio o el fanatismo calen en individuos y colectivos: la educación.

Una educación sólida en valores, que transmita con claridad lo que es justo y lo que es injusto, que fomente la tolerancia, la libertad, el respeto y la fraternidad. Una enseñanza que eduque en igualdad. Todos estos valores no son, lamentablemente, tópicos o lugares comunes. La realidad nos indica que si descuidamos esta dimensión humana y humanista en la educación de los más jóvenes, las consecuencias se pagan a la larga en forma de una sociedad menos democrática.

Pongo en este contexto la aportación que el Festival de Cine y Derechos Humanos sigue realizando como espacio inspirador de esos valores. Desde el ángulo del arte nos llegará un año más una cascada de películas que nos harán pensar, que nos removerán y nos emocionarán. Todo ello también contribuirá a que, al término de este ciclo, seamos mejores personas.

# PRESENTATION

## Cinema that makes us better

The world we live in is still plagued by situations where violating the rights and dignity of many people is an everyday reality. Unfortunately, in many countries, there are still children and young people with no life opportunities who are forced to emigrate, even going so far as to endanger their very own life. Or women and girls who cannot live in freedom as we, or their male counterparts, do. Or people who are hunted and jailed for their ideas. Or where basic rights, such as education, work, sexual identity or a decent living conditions are sorely lacking.

Harkening back to Nelson Mandela, *"to deny people their human rights is to challenge their very humanity."*

Paradoxically, in other places around the world, progress is being made with conflicts that, just a few short years ago, appeared unresolvable: recent peace agreements in Colombia feed hopes that, even with the bloodiest wars, the pen can take seed and illuminate a weapon-free stage. This is perhaps mere consolation, yet it aids us to not give up hope in a world where our fellow citizens in many different countries are bleeding day after day.

Our own recent history, our experiences, are a beacon of light in the dark. Although not too long ago, there were individuals who deemed that taking another's life was justified to some end, our society has fortunately turned over a new leaf. We still have a few more leaves to write before the peace we seek becomes a reality, based on memory, reparation and justice. And before those who suffered the most can find consolation, where their suffering, or the suffering of their loved ones, is more than an empty life, with acknowledgement of the injustice they have suffered.

I am sure that those of us who have lived in societies with violence yearn to shout out: "Never again!" And at this point, I believe that there is a core factor more effective than any other to prevent hate and fanaticism from taking root in individuals and collectives: education.


An education with solid values that clearly teaches what is just and unjust, encouraging tolerance, freedom, respect and brotherhood. Teaching equality education. Regrettably, all of these values are not common, shared issues. Reality shows us that if we forget to care for this human and humanist aspect in educating our youth, the long-term consequences take shape as a less democratic society.

I am placing the Human Rights and Film Festival's contribution within this context, as it continues to act as a space to inspire us with these values. From the artistic perspective, we once again have a list of films to make us think, to move us, to make us feel. At the end of this cycle, all this will also aid us in becoming better people.



# ama, nora goaz?

Gipuzkoatik kanporatu zituzten emakumeen istorioa.



**Baleuko**-k egindako dokumentala



INAUGURAZIOA  
INAUGURACIÓN  
OPENING NIGHT

2011ko urtarrilaren 25ean Tahrir plazako matxinadak hasi ziren Egipton. Gazteriak, sare sozialen bitartez mobilizatuak, eta korrupzioaz, pobreziaz eta askatasun faltaz nazkatuta zegoen populazioak, lortu egin zuten 2011ko otsailaren 11n Hosni Mubarakek presidentziari uko egitea, boterean 30 urtez egon ondoren.

2012an egin ziren aurreneko hauteskunde gardenak Egiptoko historian, eta Mohamed Mursi islamista, moderatutzat hartutakoa, izan zen garaile, bigarren itzulian eta botoen %51rekin bakarrik. Bere Gobernuak, Anaitasun Musulmanak babestuak, ez zuen sendotzea lortu, ordea. Hala, garrastu egin ziren protestak, 2013ko uztailaren 3an Armadak estatu kolpea eman eta presidente Abdulfatah Al-Sisi altxatu zuen arte. 2014ko ekainean, presidentziarako hauteskunde berriak egin ziren eta hala bermatu zuen Al-Sisi bere kargua.

Sei urte baino gehiago igaro dira Arabiar Udaberriak hasi zirenetik, eta ezegonkortasun politiko eta sozial izugarri batean murgilduta jarraitzen du Egiptok; populazioa polarizatuta dago, modernitate handiagoa aldarrikatzen duen hiriko gazteria teknologiko baten eta sektore zahartuagoek eta landatarrek defendatutako jarrera kontserbadoreen artean.

El 25 de enero de 2011 comenzaron en Egipto las revueltas de la plaza Tahrir. La juventud, movilizada a través de redes sociales, y una población hastiada por la corrupción, la pobreza y la falta de libertades consiguieron que, el 11 de febrero de 2011, Hosni Mubarak renunciara a la presidencia, tras 30 años en el poder.

En 2012 se celebraron las primeras elecciones transparentes en la historia de Egipto, de las cuales salió vencedor el considerado islamista moderado Mohamed Mursi, en segunda vuelta y con solo el 51% de los votos. Su Gobierno, apoyado por la Hermandad Musulmana, no llegó a consolidarse. Las protestas se redujeron hasta que, el 3 de julio de 2013, el Ejército dio un golpe de Estado, y alzó como presidente a Abdulfatah Al-Sisi. En junio de 2014 se celebraron nuevas elecciones presidenciales y Al-Sisi consolidó su cargo.

Han pasado más de seis años del inicio de las denominadas Primaveras Árabes, y Egipto sigue sumido en una gran inestabilidad política y social, con la población polarizada entre una juventud urbana y tecnológica que reclama más modernidad y las posturas más conservadoras defendidas por sectores más envejecidos y rurales.

The Egyptian uprisings began in Tahrir Square on 25th January 2011. Young people, mobilised through social media, and a population weary of corruption, poverty and the lack of freedoms succeeded in pressing Hosni Mubarak to give up his presidency on 11th February 2011, after 30 years in power.

The year 2012 saw the first transparent elections in the history of Egypt, the winner of which was the man considered to be a moderate Islamist, Mohamed Morsi, in the second round and with only 51% of the votes. His government, supported by the Muslim Brotherhood, never achieved consolidation. The protests spread until, on 3rd July 2013, the Army led a Coup d'état, installing Abdul Fattah Al-Sisi as president. In June 2014 new presidential elections were held, and Al-Sisi consolidated his position.

Six years have now passed since the beginning of the so-called Arab Spring, and Egypt is still submerged in widespread political and social instability, with the population polarised between the urban, technology-driven youth who demand a move towards modernity and the more conservative positions defended by older and more rural sectors.





## CLASH / ESHTEBAK (2016)



Kairo, 2013ko uda. Egiptoko iraultzaren bi urte bete dira. Morsi islamiar presidentearen kargugabetzea eta gero, sinesmen erlijioso eta ideia politiko desberdineko manifestari ugari atxilotu zituzten, istilu bortitz batzuetan zehar. Poliziaren furgoi berean amaitu dira denak. Ditutzen desberdintasunak gainditzeko gai izango ote dira osorik irten ahal izateko?

El Cairo, verano de 2013. Se cumplen dos años de la revolución egipcia. Inmediatamente después de la destitución de Morsi, el presidente islamista, decenas de manifestantes con convicciones políticas y religiosas distintas son arrestados durante unos violentos disturbios. Acaban en el mismo furgón policial. ¿Serán capaces de superar sus diferencias para salir ilesos?

Cairo, the summer of 2013. Two years after the Egyptian revolution. Immediately after the removal of Morsi, the Islamist president, dozens of demonstrators with different political and religious convictions are arrested during violent riots. All are thrown into the same police van. Will they be able to overcome their differences and get out of there in one piece?

Egipto-Frantzia

**Zuzendaritza:** Mohamed Diab

**Ekoizpena:** Mohamed Hefzy, Eric Lagesse, M. W. Zackie / Film Clinic, Sampek Productions, Emc Pictures, Arte France Cinéma, Niko Films

**Gidoia:** Khaled Diab, Mohamed Diab

**Argazkia:** Ahmed Gabr

**Musika:** Khaled Dagher

**Muntaketa:** Ahmed Hafez

**Aktoreak:** Nelly Karim, Hany Adel, Tarek Abdel Aziz, Ahmed Malek, Ahmed Dash

**Iraupena:** 97 min

**Kontaktua:** Golem  
golem@golem.es  
www.golem.es

- \* Festival de Valladolid (2016): Premio Pilar Miró al Mejor Nuevo Director / Mejor Fotografía
- \* Festival de Kerala (India) (2016): Mejor Película / Premio del Público
- \* Carthage Film Festival (Túnez) (2016): Tanit d'Argent / Mejor Fotografía / Mejor Montaje



Albiste  
Zerbitzuak

Servicios  
Informativos

**LIDERRAK  
ZURI ESKER**


**LÍDERES  
POR TI**



SELECCIONADA PARA EL OSCAR®  
A LA MEJOR PELÍCULA EN LENGUA NO INGLESA

CECILIA  
ROTH

JUSTINA  
BUSTOS



# migas de pan

UNA PELÍCULA DE MANANE RODRÍGUEZ



Producida por XAMALÚ FILMES y RCI PRODUCCIONES en asociación con ABANO PRODUCCIONES y MALCONTENTA PRODUCCIONES  
Con QUIQUE FERNÁNDEZ - ANDREA DAVIDOVICS - MARGARITA MUSTO - PATXI BISQUERT - STEFANIA CROCCE - ERNESTO CHAO - SONIA MÉNDEZ - ULISES DI ROMA - MARÍA VIDAL - INÉS LAGE - NURIA FLÓ - ARTUR TRILLO - LAURA DE BENITO - HELEN BERTELS  
Director de Fotografía DIEGO ROMERO SUÁREZ-LLANOS - Dirección de Arte MARTA VILLAR y DANIEL FERNÁNDEZ VAGA - Sonido Directo FABIAN OLIVER y DANI LÓPEZ - Música PACO IBÁÑEZ y ANDRÉS STAGNARO  
Producción Ejecutiva CHELO LOUREIRO - Producción Ejecutiva Uruguay CECILIA IBÁÑEZ - Productor XAVIER BERMÚDEZ - Guión MANANE RODRÍGUEZ y XAVIER BERMÚDEZ - Dirección MANANE RODRÍGUEZ

xamalúfilmes

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AGADIC

AIETEKO KULTUR PARKEA  
PARQUE CULTURAL DE AIETE




BAKEAREN ETA GIZA  
ESKUBIDEEN ETXEA



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

CASA DE LA PAZ Y LOS  
DERECHOS HUMANOS

DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN



B U K A E R A

C L A U S U R A

C L O S I N G C E R E M O N Y

2017an betetzen dira 10 urte Bulgaria Europar Batasunean sartu zenetik. Denbora honetan hobetu egin da ekonomia, gutxitu egin da pobrezia, eta egonkortasun soziopolitiko handiagoa lortu da. Dena den, EBko herrialderik pobreena izaten jarraitzen du, eta ezagutzen diren korrupzio indize altuenekin.

Demokraziaren Ikerketa Zentroaren arabera, 18 urtetik gorako bulgariar populazioaren ia %30ak onartzen du funtzionari publiko bat erosten saiatu izana 2014an. Justizia administrazioa, europar funtsen kudeaketa, baita osasun zerbitzuak eta bide segurtasuna ere, eskupekoak jaso eta faboreak trukatu ohi diren sektoreak dira, nazioarteko zenbait hedabidek salatutakoaren arabera.

2017ko urtarrilaz geroztik duten presidente berriarekin (Rumen Radev sozialista) eta apirilean izango diren gobernu hauteskondeekin, Bulgaria etapa berri bati aurre egiten ari zaio erabateko integrazioa lortzeko Europar Batasunean. Herrialde hau oraindik ez baita euroguneko kide, ezta Schengen gunekoa ere, gune hau osatzen duten 26 herrialdeen arteko pertsonen zirkulazioa librea izanik, teoriarik behintzat.

En 2017 se cumplen 10 años desde la entrada de Bulgaria en la Unión Europea. En este tiempo ha mejorado la economía, se ha reducido la pobreza y se ha alcanzado una mayor estabilidad sociopolítica. Sin embargo, sigue siendo el país más pobre de la UE y con los índices de corrupción conocidos más altos.

Según el Centro para el Estudio de la Democracia (CED), casi el 30% de la población búlgara mayor de 18 años reconoce haber intentado sobornar a un funcionario público en el año 2014. La administración de justicia, la gestión de fondos europeos, incluso la sanidad y la seguridad vial son sectores habituales de mordidas e intercambio de favores, según denuncian diversos medios de comunicación internacionales.

Con un nuevo presidente desde enero de 2017 (el socialista Rumen Radev) y elecciones gubernamentales en abril, Bulgaria afronta una nueva etapa para conseguir su plena integración en la Unión Europea. Ya que este país todavía no es miembro de la zona euro ni del espacio Schengen, según el cual, teóricamente, las personas pueden circular libremente por los 26 países que lo integran.

In 2017 it will be 10 years since Bulgaria joined the European Union. During this time the economy has improved, poverty has fallen and greater socio-political stability has been achieved. However, it is still the poorest country in the EU and the one with the highest known corruption rates.

According to the Centre for Democracy Studies (CDS), almost 30% of the Bulgarian population over the age of 18 admits to having tried to bribe a civil servant in 2014. The administration of justice, the management of European funds, even healthcare and road safety are common areas for backhanders and the exchange of favours, as condemned by different international media.

With a new president since January 2017 (the socialist Rumen Radev) and government elections in April, Bulgaria is faced with a new stage for its full integration to the European Union. This is because the country is not yet a member of the euro zone or of the Schengen area, according to which people can, theoretically, circulate freely in the 26 countries making it up.



# UN MINUTO DE GLORIA

Slava / Glory (2016)

Lehiaketatik kanpo / Fuera de concurso / Out of competition



Goiz batean, Tsanko Petrovek, trenbideetako langileak, diruz betetako poltsa bat aurkituko du trenbidean. Poliziarri abisatzea erabakiko du. Garraio Ministerioko agintariek, korrupzio kasu batengatik egun horietan egunkarietako lehen orrialdean ageri direnek, Petrov saritzea erabakiko dute bere jokabideagatik, era horretan berri on bat emateko asmoz. Eskumuturreko erloju bat oparituko diote ekitaldian, eta daramana kenduko diote: aitak oparitako Glory bat. Bere erloju berreskuratzen saiatu bitartean, galdu egin dutela jakingo du. Hemen hasten da bere erloju zaharra eta bere duintasuna lehengoratzeko ekingo dion borroka.

Tsanko Petrov, trabajador de los ferrocarriles, encuentra una mañana una bolsa con una gran cantidad de dinero en las vías. Decide avisar a la policía. Las autoridades del Ministerio de Transportes, en las portadas de los periódicos esos días por un caso de corrupción, deciden conceder un premio a Petrov por su gesto, para dar una noticia positiva. En el acto le regalan un reloj de pulsera y le quitan el suyo, un Glory regalo de su padre. Cuando intenta recuperarlo descubre que lo han perdido. Aquí empieza su lucha por recuperar su viejo reloj y su dignidad.

One morning, railway worker Tsanko Petrov finds a bag stuffed with a huge amount of money on the tracks. He decides to report it to the police. The Ministry of Transport authorities, splattered over the front pages of the newspapers in relation to a case of corruption just at that time, decide to reward Petrov for his gesture and generate a piece of positive news. At the ceremony Petrov is presented with a wristwatch while they remove his own, a Glory given to him by his father. When he tries to recover it he learns that it has been lost. This is the start of a struggle to retrieve his old watch, and his dignity.

Bulgaria-Grezia

**Zuzendaritza:** Kristina Grozeva, Petar Valchanov

**Ekoizpena:** Kristina Grozeva, Petar Valchanov / Abraxas Film, Graal Films

**Gidoia:** Kristina Grozeva, Petar Valchanov, Decho Taralezhkov

**Argazkia:** Krum Rodriguez

**Musika:** Hristo Namilev

**Muntaketa:** Petar Valchanov

**Aktoreak:** Stefan Denolyubov, Margita Gosheva, Milko Lazarov, Kitodar Todorov

**Iraupena:** 101 min

**Kontaktua:** La Aventura Audiovisual  
info@laaventuraaudiovisual.com  
laaventuraaudiovisual.com

\* Festival de Gijón (2016): Mejor Película / Mejor Guion / Premio FIPRESCI

# LA MANO INVISIBLE

¿TE IMPORTA QUE TE MIREN MIENTRAS TRABAJAS?



UNA PELÍCULA COOPERATIVA DE LMI BASADA EN LA NOVELA  
"LA MANO INVISIBLE" DE ISAAC ROSA

CON JOSEAN BENGÓEXTEA, EDUARDO FERRÉS, ELISABET GELABERT, CHRISTEN JOULIN,  
MARTA LARRALDE, ESTHER ORTEGA, DANIEL PÉREZ PRADA, BRUTO POMEROY,  
MARINA SALAS, BÁRBARA SANTA-CRUZ Y JOSÉ LUIS TORRIJO

PRODUCCIÓN IRENE NAVARES ARTE MARÍA DÍAZ VESTUARIO SANDRA G. GUDIÑA  
MAQUILLAJE Y PELUQUERÍA LAURA G. LOAISA Y ELIZABETH WIC  
SONIDO ALBERTO PACHECO FOTOGRAFÍA FERNANDO FERNÁNDEZ  
MONTAJE DANIEL CORTÁZAR  
GUIÓN DANIEL CORTÁZAR Y DAVID MACIÁN  
DIRECCIÓN DAVID MACIÁN  
[WWW.LAMANOINVISIBLELAPELICULA.COM](http://WWW.LAMANOINVISIBLELAPELICULA.COM)



F I L M L U Z E A K

L A R G O M E T R A J E S

F E A T U R E F I L M S

1932an Stalinen gobernuak Sobietar Batasuneko adierazpide artistiko ororentzat inposatu zuen errealismo sozialista, eta baztertu egin zituen burgestzat hartutako beste adierazpide batzuk. Korrante horren helburua da balio komunistak artean irudikatzea, populazioa hezte eta klase kontzientzia bultzatzea, iraultza idealizatuz eta proletarioak, nekazaritzakoak nahiz industriakoak, goraiatuz, euren erremintekin eta laneko jantziekin erretratatuta, miresteko moduko irudi bat balira bezala.

Sobietar Batasunak bere eraginpean zituen gainerako estatu sozialistetara zabaldu zuen politika hori, Poloniako Herri Errepublikara, besteren artean. Polonia sobietartzeko prozesuan, emakumezko eta gizonezko abangoardiako artistak, haien artean Strzemiński, behartu egin zituzten errealismo sozialista berenganatzera. Inposizio horri aurre egitera ausartu zirenek zentsurak eta marjinazioa jasan behar izan zituzten agintarien aldetik.

En 1932 el gobierno de Stalin impuso el realismo socialista como forma de toda expresión artística en la Unión Soviética, y rechazó otras manifestaciones consideradas burguesas. Esta corriente trata de plasmar los valores comunistas en el arte, educar a la población y fomentar la conciencia de clase a través de idealizar la revolución y ensalzar al proletariado, tanto agrícola como industrial, retratándolo con sus herramientas y vestimentas de trabajo, como sujeto digno de admiración.

La Unión Soviética expandió esta política al resto de estados socialistas bajo su órbita, entre ellos la República Popular Polaca. En el proceso de soviétización de Polonia, mujeres y hombres artistas de vanguardia, entre otros Strzemiński, fueron conminados a adoptar el realismo socialista. Quienes se atrevieron a hacer frente a esta imposición sufrieron censura y marginación por parte de las autoridades.

In 1932 Stalin's government imposed socialist realism as a form of all artistic expression in the Soviet Union and rejected other expressions considered to be middle-class. This trend endeavours to express communist values in art, to educate the population and foster class awareness by means of idealising the revolution and extolling the proletariat, agricultural and industrial alike, portraying them with their work tools and clothes as a subject deserving admiration.

The Soviet Union extended this policy to the other socialist states within its orbit, among which was the Polish People's Republic. In the process of its Sovietization, avant-garde men and women artists, including Strzemiński, were instructed to adopt socialist realism. Anyone daring to challenge the imposition suffered censorship and marginalisation by the authorities.



# AFTERIMAGE / POWIDOKI (2016)



Polonia

**Zuzendaritza:** Andrzej Wajda

**Ekoizpena:** Michał Kwieciński / Akson Studio, TVP – Telewizja Polska,

**National** Audiovisual Institute (NINA), PISF, Tumult Foundation

**Gidoia:** Andrzej Mularczyk

**Argazkia:** Paweł Edelman

**Musika:** Andrzej Panufnik

**Muntaketa:** Grażyna Gradoń

**Aktoreak:** Bogusław Linda, Bronisława Zamachowska, Zofia Wichłacz, Tomasz Włosok, Paulina Gałązka

**Iraupena:** 98 min

**Kontaktua:** A Contracorriente Films  
 info@acontracorrientefilms.com  
 www.acontracorrientefilms.com

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Wladyslaw Strzemiński pintore famatuak, Unismoaren teoriaren sortzaile eta momentu honetako artista plastiko gailenetakoak, Łódź-eko Arte Eder Eskolan dihardu irakasle lanean. Poloniako agintariek ez dute begi onez ikusten bere lana, asko urruntzen delako inposatzen saiatzen ari diren errealismo sozialeko doktrinetatik. Strzemińskik ez die jarraitu nahi Partiduaren aginduei eta bota egin dute unibertsitatetik eta artisten elkartetik. Lan egiteko aukerarik gabe eta dirurik gabe, beso bat eta hanka bat falta zaizkiola, Lehen Mundu Gerran galdu zituenak, nekez bizi da pobrezian, pintatzen eta *Ikuspenaren teoria* bere liburu ezaguna bukatzen ari den bitartean.

Andrzej Wajda (1926-2016) maisu zinegile poloniarrek zuzendutako azkeneko filma, XX. mendearen lehenengo erdiko Europako arte abangoardistaren ordezkari gailenetako baten bizitzaren azkeneko urteetan oinarritua.

Tras la Segunda Guerra Mundial, el afamado pintor Wladyslaw Strzemiński, creador de la teoría del Unismo y uno de los artistas plásticos más importantes del momento, trabaja como profesor en la Escuela de Bellas Artes de Łódź. Las autoridades polacas no ven con buenos ojos su trabajo, muy alejado de las doctrinas del realismo socialista que tratan de imponer. Strzemiński se niega a seguir los dictados del Partido y es expulsado de la universidad y de la unión de artistas. Sin posibilidad de trabajar ni dinero, sin un brazo y una pierna, que perdió en la Primera Guerra Mundial, malvive en la pobreza mientras sigue pintando e intentando acabar su célebre libro *Teoría de la Visión*.

Última película dirigida por el maestro del cine polaco Andrzej Wajda (1926-2016), centrada en los últimos años de la vida de uno de los máximos representantes del arte vanguardista europeo de la primera mitad del siglo XX.

After World War II, the famous painter Wladyslaw Strzemiński, creator of the theory of Unism and one of the most important fine arts artists of the day, works as a professor at the Łódź School of Fine Arts. The Polish authorities scorn his work, far removed from the socialist realism doctrines they strive to impose. Strzemiński refuses to obey the Party dictates and is expelled from the university and from the artists' guild. Unable to find work and with no money, having lost an arm and a leg in the 1<sup>st</sup> World War, he scrapes a miserable existence while continuing to paint and complete his famous book *Theory of Vision*.

Last film by the master of Polish film, Andrzej Wajda (1926-2016), focussed on the latter years in the life of one of the greatest representatives of European avant-garde art of the first half of the 20th century.

40 urtez, Gerra Zibilean eta diktaduran zehar gertatutakoari buruzko kontakizun ofizialetik aldentzen zen interpretazio oro isilarazi zuen frankismoak. Hala, ezkutuan geratu dira garai hura sufritu zuten emakumeen istorioak, garai haiei aurka eta aurre egin zieten emakumeenak.

Beldurra, errepresioa eta patriarkatuaren eragina izan ziren emakume ausart horien istorioak ezkutuan mantentzera eramane zutenak, askatasunaren alde eta seme-alabak aurrera ateratzeko borrokatu ziren emakume haien istorioak. Euren testigantzak, euren oroitzapenak, kasurik onenean ahoz transmititu izan dira familiaren barruan.

Gaur egun, anitzak dira memoria horiek berreskuratzen saiatzen ari diren ekimenak, indarkeria isilpean jasan behar izan duten pertsonen eta kolektiboen ahotza ematen dietenak. Publikoki partekatzea eta sufritutako oinazea komunitateak aintzatestea oso lagungarria izan daiteke oroitzapen traumatikoak arintzeko eta elkarbizitza errazteko.

El franquismo silenció, durante 40 años, toda interpretación que difiriese del relato oficial sobre lo ocurrido durante la Guerra Civil y la dictadura. Más ocultas, si cabe, quedan las historias de mujeres que la sufrieron, pero que resistieron y la enfrentaron.

El miedo, la represión y la influencia del patriarcado provocaron que las historias de estas mujeres valientes, que lucharon por la libertad y por sacar adelante a sus hijos e hijas, permaneciesen invisibles. Sus testimonios, sus memorias, se han transmitido, en el mejor de los casos, de manera oral dentro de la familia.

En la actualidad, son diversas las iniciativas que tratan de rescatar estas memorias y dan voz a personas y colectivos que han padecido la violencia en silencio. Compartirlas públicamente y el reconocimiento por parte de la comunidad del dolor sufrido pueden resultar de gran ayuda para aliviar los recuerdos traumáticos y facilitar la convivencia.

For 40 years the Franco regime silenced all interpretations differing from the official version of events during the Civil War and the dictatorship. Even more enshrouded, if possible, are the stories of the women who suffered the dystopia, but who stood up to and confronted it.

Fear, repression and the influence of the patriarchy led to the stories of these brave women, who fought for freedom and to support their sons and daughters, remaining in the shadows. At best, their testimonies, their memories, have been passed down orally in family circles.

Today several initiatives try to recover these memories and lend voice to people and collectives who suffered the violence in silence. Sharing them publicly and recognition by the community of the pain suffered could be enormously helpful in relieving the traumatic memories and paving the way to living together.



# AMA, NORA GOAZ? (2016)

Lehiaketatik kanpo / Fuera de concurso / Out of competition



Euskadi

**Zuzendaritza:** Iban Gonzalez

**Ekoizpena:** Karmelo Vivanco, Idurre  
Cajaraville / Baleuko

**Gidoia:** Jon Gonzalo

**Argazkia:** Ramon Larrabaster

**Muntaketa:** Iban Gonzalez

**Iraupena:** 62 min

**Kontaktua:** Baleuko  
baleuko@baleuko.com  
www.baleuko.eus

Dokumental honetan emakumeak dira istorioaren ardatza. Gerra Zibileko gertaera beltz baten protagonista izandako emakumeak. Emakume anonimoak, euren etxeak atzean uztera behartuak. Noraezean abiatu zirenak, euren senarrak edo aitak beste bandoan borrokan ari zirelako bakarrik errepresaliatuak. Beste ehunka emakumerekin batera, beste frontea izan ziren haiek, ahaztutako frontea, alegia. Biktimak, baina baita heroiak ere. Heroiak euren balentriagatik, seme-alabak gainean hartuta deserrirako bideari ekin izanagatik. Ehunka kilometro egin zituzten nora helduko ziren ez zekitelako. Arriskuan jarri zituzten euren bizitzak, maite zituztenak babesteko, egunen batean euren lehengo bizitza berreskuratu ahal izango ote zuten jakin gabe. Eta, izan ere, errotik erauzi zieten haiei euren bizitza. Gipuzkoako herrietako emakumeen milaka bizitza.

En este documental las mujeres son el eje de la historia. Mujeres protagonistas de un negro episodio de la Guerra Civil. Mujeres anónimas que se vieron obligadas a abandonar sus hogares. Que partieron sin rumbo, represaliadas por el mero hecho de que sus maridos o padres combatían en el otro bando. Ellas fueron, junto con otros cientos de mujeres, el otro frente, el olvidado. Víctimas, pero también heroínas. Heroínas por su valentía, cargadas de sus hijos e hijas, emprendieron el viaje al destierro. Recorrieron cientos y cientos de kilómetros con destino incierto. Arriesgando sus vidas mientras protegían a sus familias, sin la menor seguridad de poder recuperar algún día su propia vida. Esa vida que les arrebataron. Miles de vidas de mujeres vecinas de municipios de Gipuzkoa.

A documentary on the subject of women. The female protagonists of a dark episode of the Civil War. Anonymous women forced to leave their homes. Sent off with no destination, targeted simply because their husbands or fathers were fighting for the other side. They were, with hundreds of other women, the other front, the forgotten one. Victims, but heroines too. Heroines for their bravery, sons and daughters in tow, as they set out on a journey of exile. They travelled for hundreds and hundreds of miles, not knowing where they were headed. Risking their lives as they protected their loved ones, not knowing if they would ever recover their own lives. That life snatched from them. Thousands of lives of local women from the towns and villages of Gipuzkoa.

Duela urte gutxi batzuk, Europako ultraeskuina gutxiengo urri bat besterik ez zen. Gaur egun, ordea, muturreko eskuineko alderdiek hautesleen %20-%30 biltzen dituzte zenbait herrialdetan, Danimarkan, Austrian edo Suitzan, besteak beste. Gainera, eskuineko populismoak duen indarraren erakusgarri ditugu Brexiten arrakasta Erresuma Batuan eta Donald Trumpena Estatu Batuetan. Eta Frantziako lehendakartzarako hauteskondeak hemendik bi hilabetera izango direnean, inkestetan, Marine Le Penen lidergoak (boto asmoaren %27) irmotu egiten du joera hori.

Krisialdi finantzarioa eta ekonomikoa, aurreikusi ezin dugun etorkizunaren ziurgabetasuna, segurtasun faltaren pertzepzioa, erlijio musulmanarekiko konfiantzarik eza edo errefuxiatuen eta inmigranteen iritsiera dira ideologia horren goraldiaren faktore nagusi, muturreko alderdiek erabili ohi dituztenak euren ideia nazionalista baztertzaila, xenofobo eta euroeszeptikoak aldarrikatzeko. Hala, hainbat neurri proposatzen dituzte, esaterako, mugak ixtea, subiranotasuna lehengoratzeta eta moneta nazionalak berreskuratzea.

Hace unos pocos años, la ultraderecha en Europa representaba únicamente a una pequeña minoría. A día de hoy, sin embargo, los partidos de extrema derecha acumulan entre el 20 y el 30% del electorado en varios países, como Dinamarca, Austria o Suiza. Los triunfos del Brexit en Reino Unido y Donald Trump en Estados Unidos constatan la fuerza del populismo de derechas. Y el liderazgo de Marine Le Pen en las encuestas (27% de la intención de voto), a solo dos meses de las elecciones presidenciales en Francia, corrobora esta tendencia.

La crisis financiera y económica, la incertidumbre ante un futuro imprevisible, la percepción de inseguridad, la desconfianza hacia la religión musulmana o la llegada de personas refugiadas e inmigrantes son considerados los factores principales del auge de esta ideología. Y son utilizados por los partidos extremistas para reivindicar sus ideas nacionalistas excluyentes, xenófobas y euroescépticas. Así, proponen medidas como el cierre de las fronteras, la recuperación de la soberanía y de las monedas nacionales.

A few years ago, the extreme far right in Europe represented no more than a small majority. Today, however, extreme right wing parties accumulate between 20 and 30% of the votes in several countries, such as Denmark, Austria and Switzerland. The successes of Brexit in the UK and Donald Trump in the USA demonstrate the strength of right-wing populism. And the leadership of Marine Le Pen in the polls (27% voting intention), with only two months to go until the presidential elections in France, corroborate this trend.

The financial and economic crisis, uncertainty in the face of an unpredictable future, the perception of insecurity, mistrust in the Muslim religion or the influx of refugees and immigrants are considered to be the main reasons for the rise in this ideology. And they are used by far-right parties to promote their exclusive, xenophobic and Eurosceptic nationalist ideas. These parties propose measures such as closing borders, recovering sovereignty and returning to national currencies.



# BOILING POINT / KIEHUMISPISTE (2017)



Finlandia

**Zuzendaritza:** Elina Hirvonen

**Ekoizpena:** Sami Jahnukainen, Timo Vierimaa / Mouka Filmi

**Gidoia:** Elina Hirvonen

**Argazkia:** Jarkko M. Virtanen

**Musika:** Hans Wessels

**Muntaketa:** Timo Peltola

**Iraupena:** 90 min

**Kontaktua:** Malin Björkman-Widell  
malinbw@gmail.com

Gaur egungo Finlandiako gizarte banandu eta haserretuaren bi aurpegiak erakusten dizkigun dokumentala: batetik, asiloa eskatzen dutenak, eta bestetik, migratzaileen aurkako taldea, "Odinen Soldaduak" delakoa eta kaleak patruilatzen ibiltzen dena. Estereotipoak saihesten saiatuz, elkarrizketa baten hasiera da **Boiling Point**: gorrotoan baino errespetuan oinarrituta, herrialde osoan zehar zabaldutako elkarrizketa, Parlamentutik hasi eta sauna publikoetaraino, Finlandiako gizartea norantz doan zehazteko asmoz.

Documental que muestra las dos caras de la dividida y enfadada sociedad finlandesa de hoy en día: por una lado las personas solicitantes de asilo, por la otra un grupo anti-migrantes llamado "Soldados de Odín" que patrulla las calles. Intentando evitar los estereotipos, **Boiling Point** es el inicio de una conversación basada en el respeto y no en el odio, un diálogo que tiene lugar por todo el país, desde el Parlamento hasta las saunas públicas, con el fin de determinar hacia dónde camina la sociedad finlandesa.

Documentary showing the two faces of today's angry and divided Finnish society: on the one hand, asylum seekers and, on the other, an anti-immigrant street patrol group called "Soldiers of Odin". Based on respect rather than hatred, and endeavouring to avoid stereotypes, **Boiling Point** aims to prompt discussion all over the country, from the Parliament to the public saunas, in an attempt to establish the direction being taken by Finnish society.

Mongolian, munduko gainerako lekuetan bezala, ugariak dira usadioak, ohiturak eta tradizioak gizonezkoei eta emakumezkoei bereizitako rolak ematen dizkietenak. Oro har, gizonek espazio publikoan garatzen dituzten jarduerak, eta komunitate guztiaren errekonozimendua jasotzen dute. Emakumeei, aitzitik, eremu pribatuko zereginak dagozkie, gutxietsitakoak askotan.

Hala eta guztiz ere, nagusitutako usadioei eta ohiturei desafio egitera ausartu izan diren emakumeez josita dago historia, eta lehen debekatuta zituzten bideei ekin dietenak. Emakume ugariren borrokei eta aldarrikapenei esker, parekideagoa eta bidezkoagoa da nolabait gaur egungo gizartea.

En Mongolia, como en el resto del mundo, existen usos, costumbres y tradiciones que asignan roles diferenciados a hombres y a mujeres. Generalmente, los hombres desarrollan actividades en el espacio público y reciben el reconocimiento de toda la comunidad. A las mujeres, por el contrario, les suelen corresponder tareas de ámbito privado, muchas veces desvalorizadas.

No obstante, la historia está repleta de mujeres que se han atrevido a desafiar los usos y costumbres dominantes, y que han emprendido caminos que antes les estaban vedados. Gracias a las luchas y reivindicaciones de muchas mujeres, hoy en día la sociedad es un poco más igualitaria y justa.

In Mongolia, like in the rest of the world, habits, customs and traditions assign different roles to men and women. Generally, men go about activities where people can see them, receiving recognition from the whole community. Women, on the other hand, tend to work at home, behind the scenes, with little acknowledgement.

This said, history is full of women who have courageously bucked the predominant habits and customs, following paths once forbidden to them. Thanks to the struggles and vindications of many women, today society is a little more egalitarian and just.



# LA CAZADORA DEL ÁGUILA

## The Eagle Huntress (2016)



AEB

**Zuzendaritza:** Otto Bell

**Ekoizpena:** Stacey Reiss, Sharon Chang, Otto Bell / Stacey Reiss Productions, 19340 Productions, Kissiki Films

**Gidoia:** Otto Bell

**Argazkia:** Simon Niblett

**Muntaketa:** Pierre Takal

**Narrazioa:** Daisy Ridley

**Iraupena:** 87 min

**Kontaktua:** Barton Films  
bartonfilms@bartonfilms.com  
www.bartonfilms.com

Mongoliako ekialdean, Altai mendigunean girotutako dokumental honetan nerabe bat borrokan ari da tradizioaren aurka. Bertan, ehunka urtez, kazaja komunitatea bizi da, arrano beltzekin harreman berezi bat duena: arranoak txikitatik hazi eta prestatu egiten dituzte ehizarako. Hori beti izan da gizonei soilik zuzendutako lanbidea. Aisholpan-ek, ordea, arranoen ehiztari baten 13 urteko alabak, aitaren pausoei jarraitzeko erabaki irmoa hartu du.

Una adolescente lucha contra la tradición en este documental ambientado en el macizo de Altai, al este de Mogolia, donde desde hace centenares de años reside una comunidad kazaja que mantiene una especial relación con las águilas reales, a las que crían desde pequeñas y preparan para la caza. Este siempre ha sido un oficio reservado para los hombres. Pero Aisholpan tiene 13 años, es hija de un cazador de águilas y está decidida a seguir sus pasos.

A teenage girl defies tradition in this documentary set in the Altai mountains of East Mongolia, home for hundreds of years to a Kazakh community with special ties to the golden eagles they raise from an early age and train to hunt. The skill has always been handed down from father to son. But 13 year old Aisholpan, the daughter of an eagle hunter, is determined to follow in his footsteps.

\* Festival de Denver (2016): Premio del Público al Mejor Documental

\* Festival de Hawái (2016): Premio del Público al Mejor Documental

\* Festival de Middleburg (2016): Premio del Público al Mejor Documental

Abortatzea legezkoa da Estatu Batuetako estatu guztietan, 1973an Gorte Gorenak aurrekaria ezarri zuenetik "Roe vs. Wade" epai famatuarekin, pribatutasunaren eskubide konstituzionalean oinarrituta. Haurdunaldiaren aurreneko hiru hilabeteetan, estatuek ezin diote ezarri inolako murrizketarik eskubide horri.

Hala eta guztiz ere, azken urteotan ugaritu egin dira TRAP (euskaraz tranpa esan nahi du) direlako legeak, abortuak praktikatzen dituzten kliniketarako araudi espezifikoak, zentro horiei kostu handiko berrikuntzak exijitzen dizkietenak edo euren pazienteak inguruko ospitaleetan onartuak izateko eskubidea izatea eskatzen dietenak. Klinika horietako asko ixtera behartu dituzten eskakizunak, alegia.

2016ko ekainean, Gorte Gorenak berriro eman zuen epaia, abortatzearen eskubidea defendatu eta amarru legal horiei aurka egiten ziena. Dena den, gero eta gogorragoa da sektore antiabortisten presioa, hegoekialdeko estatu amerikarretan batik bat.

El aborto es legal en todos los estados de los Estados Unidos desde que, en 1973, la Corte Suprema sentara precedente con la famosa sentencia "Roe contra Wade", basándose en el derecho constitucional a la privacidad. Dentro de los tres primeros meses de embarazo, los estados no pueden establecer ninguna restricción a este derecho.

Sin embargo, en los últimos años han proliferado las llamadas leyes TRAP (en español significa trampa), reglamentaciones específicas para las clínicas que practican abortos, que exigen a estos centros renovaciones muy costosas o que tengan derecho de admisión de sus pacientes en hospitales cercanos. Requisitos que han abocado al cierre a muchas de estas clínicas.

En junio de 2016 la Corte Suprema volvió a fallar en defensa del derecho al aborto y en contra de estas tretas legales. No obstante, la presión de los sectores antiabortistas es creciente, principalmente en los estados del sureste americano.

Abortion has been legal throughout the United States ever since the Supreme Court set a precedent in 1973 with the famous Roe vs Wade landmark sentence, based on the constitutional right to privacy. In the first three months of pregnancy, no state can impose a restriction on this right.

However, recent years have seen a proliferation of the so-called TRAP laws, a series of regulations created specifically for abortion clinics under which they are required to make hugely expensive renovations or acquire admitting privileges in nearby hospitals, requisites that have driven many of them to closure.

In June 2016 the Supreme Court once again pronounced a judgement defending the right to abortion and against these legal ruses. But pressure from the anti-abortion lobbies is growing, particularly in the states of the American Southwest.



# JACKSON (2016)



Estatu Batuak

**Zuzendaritza:** Maisie Crow

**Ekoizpena:** Maisie Crow, Jamie Boyle

**Argazkia:** Maisie Crow

**Musika:** Tyler Strickland

**Muntaketa:** Jamie Boyle

**Iraupena:** 100 min

**Kontaktua:** Cargo Film & Releasing  
cailin.cargoreleasing@gmail.com  
www.cargofilm-releasing.com

Abortatzeak legala izaten jarraitzen du Estatu Batuetan; hegoalde sakonean, ordea, abortuaren aurkako erakundeek birtualki ezinezkoa, sarritan pentsaezina izatea lortu dute. Garai batean hamalau klinika zeuden Misisipin abortuak praktikatzen zituztenak. Gaur egun bat geratzen da bakarrik.

1973an herrialdean abortua despenalizatu zenetik, "bizitzaren alde" izena hartzea aukeratu duten elkarteek gatazka kultural, politiko eta legal adierazgarriak irabazi izan dituzte. Orain, "Amerikako Bibliaren Gerrikoa" deitutakoan zabaltzen ari da abortuaren estigma, eta emakume pobreak eta arraza beltzekoak dira egoera ahulenean daudenak.

El aborto sigue siendo legal en Estados Unidos, pero las organizaciones anti-abortistas han conseguido que sea virtualmente inaccesible en el profundo Sur, a menudo impensable. Hace un tiempo había catorce clínicas que practicaban abortos en Misisipi. Hoy solo queda una.

Desde la despenalización del aborto en el país en 1973, las autodenominadas asociaciones "pro-vida" han ganado significativas batallas culturales, políticas y legales. Ahora el estigma del aborto se extiende por el llamado "Cinturón de la Biblia de America", siendo las mujeres pobres y de raza negra las más vulnerables.

Abortion is still legal in the United States, but anti-abortion efforts have succeeded in making it virtually inaccessible in some places and in the Deep South, often unthinkable. At one time Mississippi had fourteen abortion clinics. Now only one remains.

Since abortion was decriminalised in the country in 1973, the self-labelled "pro-life" movement has won significant cultural, political and legal battles. Now, the stigma of abortion is prolific in the America's Bible Belt, where women in poverty and women of colour are particularly vulnerable.

\* Festival de Portland (2016): Mejor Documental / Premio del Público al Mejor Documental

\* Festival de Nueva Orleans (2016): Mejor Documental

Haur bat jaiotzen den bakoitzean sexu bat esleitzen zaio, bere genitalen behaketan oinarrituta: zakila badu mutila "izango" da, eta bulba badu neska "izango" da. Ustez "izango" da.

Dena den, haurren portzentaje bat bada esleitutako sexuarekin bat ez datorren identitatearekin. Izan ere, sexu identitatea ez da organo genitaletan oinarrituta eraikitzen, ez eta kromosometan... oinarrituta ere. Sexu identitatea subjektibotasunari, autokontzientziari dagokion zerbait da, eta haurra mintzamina bereganatzen hasten denean hasten da azaleratzen, haurrak bi urte dituenetik aurrera.

Transexualitatea ezin da diagnostikatu, identitatea diagnostikatu ezin den bezalaxe.

Ez dago oker dagoen gorputzik, giza dibertsitate handi bat baizik, zakildun neskatilak eta bulbadun mutikoak hartzen dituen bere baitan.

Cada vez que nace un bebé, se le asigna el sexo en base a la observación de sus genitales: si tiene pene "será" niño, si tiene vulva "será" niña. Se supone que "será".

Sin embargo, existe un porcentaje de niños y niñas cuya identidad no corresponde con el sexo asignado. De hecho, la identidad sexual no depende de los órganos genitales, ni tampoco de los cromosomas... La identidad sexual es una cuestión de subjetividad, de autoconsciencia, y se empieza a expresar con la conquista del lenguaje a partir de los dos años de edad.

La transexualidad no es algo que se pueda diagnosticar, porque la identidad no se puede diagnosticar.

